

## EKAINAK 24 - OSTIRALA

19:30tan

Gomazko eta Iarruzko Paletetako FINALAK. Ondoren Sari banaketa.

21:30 tan

Altzatarra K.E.-aren egoitzan, San Martzial pelota txapelketan partaide izan diren guztiekin afaria.

## EKAINAK 25 - LARUNBATA

9:00 tan

Erromeria. Altzako baserrietan zehar, 2022ko Jai Egitarauaren eskeintza, Donostiako Musika Eskolako trikitilarietz lagundurik.

19:30 tan

Altzagainako plazan, SARDINA-JANA, Nao Etxea tabernako ESTHER-ren lankidetzaren eskutik, Arabako Errioxako D. LUIS R. ardoaz lagundurik, bizilagun eta bisitari guztientzat, VINOTEC ardo-etxeak babestua.

## EKAINAK 29, ASTEAZKENA, SAN PEDRO EGUNA.

19:00tan.-

BOLO JAURTIKETA, Udal Bolatokian.

19:30ean.-

TOKA TXAPELKETA.

20:00etan.-

San Martzial Parrokian, ESLABA maisuaren SALBEA, lau ahotsetan eta organoarekin, Aita Sierra Abesbatzaren eta Parrokiko Koruaren partaidetzarekin.

20:30ean.-

Altzatarra K. E.-aren egoitzan AFARIA, Danborradan parte hartu duten guztiekin.

22etan.-

Altzako kaleetan zehar, DANBORRADA, Pasai Txarangak lagundu

00:00an.-

San Martzial Plazan, Udaletxe aurrean, San Martzial ereserkia abestuko da, Pasai taldea lagun, Danborradako partaide eta bertako auzotar guztiak lagundurik.

## SAN MARTZIAL HIMNOA / SAN MARTZIAL GOZOAK

*Kanta diezkiogun gustoz Martzial gozoak*

*Saria emango digu gure Jaungoikoak*

*Zure bost ogikien, zure bi arraiekin*

*Bost milak izan zuten mantendu zerekin*

*Haragatik zure ondoren dabilta gizonak*

*Kanta diezkiogun gustoz Martzial*

*gozoak Saria emango digu gure Jaungoikoak*

*(bis).*

## GIZARTEAREN KANTUA

*Altzatarrak, Altzatarrak, gazte heldu edo zaharrak*

*Altzatarrak, beti, beti, kasta onekoak*

*Altzatarrak, Altzatarrak, gazte heldu edo zaharrak*

*Altzatarrak, beti, beti, kasta onekoak.*

## EKAINAK 30, SAN MARTZIAL EGUNA, OSTEGUNA.

11:00tan.- Martzial Parrokian, Meza Nagusia

Altzako Deun Gorenaren omenez.

17:00etan.-

Frontenis Torneo auzotar gazteentzat. Sari asko daude... eman izena...

19:00etan Buruhandiak

## UZTAILAK 1, OSTIRALA (HAUR ETA JUBILATUEN EGUNA)

12:30ean.-

Haurrentzako MARRAZKI LEHIAKETA, "LA MAS KUKI"-k antolatua. Lehiaketaren oinarriak, egun batzuk lehenago argitaratuko dira [www.facebook.com/lamaskukidetalles](http://www.facebook.com/lamaskukidetalles) web orrian. Sari banaketa, uztailaren 2an izango da, idi demaren aurretik.

13:00tan.-

NAO ETXEAK antolatuturik TOKA Txapelketa.

13:30ean.- PATATA-TORTILLA LEHIAKETA.

13:30etan.- POSTREEN LEHIAKETA.

16:30etan Euskal dantzak, Herri Ametsa Ikastolako dantza taldearekin.

17:00etan.- SARI BANAKETA. Toka, Mus, Tute, Seietara, Bote, Igela, NAO ETXEAN, ospatutako txapelketa guztien sari banaketa. Bukatutakoan, otamen txiki bat bazkideen artean burutuko da.

18:00etan.- Antzerkia Plaza Gorrian. ZIRIKA ZIRKUS Taldea.

19:00etan.- Txokolate-jana haurrentzat, Pilotalekuan, Nao Etxeko Estherren lankidetzarekin.

19:00etan.- BURUHANDIAK kaleetan zehar.

19:30ean.-APARRAREN FESTA, San Martzial plazan.

## UZTAILAK 3, IGANDEA

9:00etan.- Minbiziaren aurkako SILIDARITZAREN AZOKA. (ASGINCER).

14:00etan.- Altzatarra K. E.aren egoitzan BAZKARIA, ALKARTASUNA Dantza Taldearekin.

16:00etan.- "ZUMBA", San Martzial Plazan, ASGINCERREN LAGUNTZAREKIN.

17:00etan.- SHOW-TIME (Erroteta 7) aren Dantza emanaldia.

18:00etan.- SAGARDO EGUNA, Altzania K. E.ak antolatuturik, pintxo eta sagardo dastaketa. Sagardo egileak: Akarregi, Petritegi, Lizeaga, Eula, Gartziategi, Altzueta.

23:00etan.- San Martzial Plazan, "ROCK SAIOA, YAKOLEV-42aren eskutik" eta "El Exterminio de la raza del mono".

## UZTAILAK 2, SANTA IXABEL, BASERRITARREN EGUNA.

10:00etan.-

San Martzial Parrokian MEZA NAGUSIA.

10:45ean.- XXX Sagardo Lehiaketa, honako sagardoegileen partaidetzarekin:

Martuteneko BARKAIZTEGI, Astigarragako GARTZIATEGI, LIZEAGA, OYARBIDE eta PETRITEGI, Hernaniko ALTZUETA eta OTSUA ENEA, eta Urnietako EULA. Ondoren, SARI BANAKETA.

12:00etan.- NAO ETXEA jubilatuen elkarteak antolatuturik, txistorra, hirugiharra eta gazta hogitartekoak egin eta saldu egingo dira.

12:30ean.- Udal Probalekuan, IDI-DEMAK. Aldez aurreko zozketa egin ondoren, bi idi pare eguerdian eta beste biak arratsaldea jardungo dira. Diru sarietz gain, bikote irabazlearentzat sari berezia egongo da. Bikoteek diru-saria edo garaikurra jasotzeko, gutxienez 30 plaza egin beharko dituzte bi mila kiloko harriarekin. Aurtengo idi bikoteen nagusiak honako hauek izango dira: MATXAIN, ORERETA; GARAIYAR, OIARTZUN; TELLERIA, LASARTE; eta OLAZAR, LEZO.

13:30ean.- BETSOLARIAK, San Martzial Plazan. JON MAIA eta AITOR MENDILUZE. Gaijartzaileak Joseba Alkiza eta Unai Elizasu.

14:30ean.- Altzatarraren egoitzan ANAITASU-NEZKO BAZKARIA, bertsolariak lagundurik.

17:00etan.- II." ALTZA HERRIA " BINAKAKO ESKUZ TXAPELKETA.

18:00etan.- Udal Probalekuan, IDI-PROBAK, eguerdian tira ez dutenen idi-pareen txanda izango da.

19:00tan.- Altzagainako San Martzial Plazan, JON MAIA eta AITOR MENDILUZE bertsolariak.

23:00.- San Martzial Plazan, DJ RU-ren emanaldia.

*Gora  
San Martzialak!*